

ikasmina:

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Ikasten duten pertsona helduak Gipuzkoan

99. dokumentua
2024ko maiatza

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
1.2. Erabilitako metodologia eta definizioak	4
2. Ikasten duten pertsonak	5
2.1. Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea.....	5
2.2. Ikaskuntza, adina edo lortutako prestakuntza.....	8
2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko lotura.....	10
3. Zein dira ikasten duten pertsonak?	11
3.1. Ikasten duten pertsonen tipologia	11
4. Zein dira ikasten ez duten pertsonak?.....	13
4.1. Ikasten ez duten pertsonen tipologia	13
4.2. Pertsonak zergatik ez dute ikasten?	15
5. Ondorioak	19
5.1. Laburpena: emaitza nagusiak.....	19

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Europako desberdintasun maila baxueneko pertsonen komunitatea bihurtzea da Gipuzkoaren helburuetako bat. Horretarako, bizitza osoko ikaskuntza erronka bat da lurraldeko eragile guztientzat. Pertsonak gero eta aldakorragoa den gizarteari eta lan-merkatuari aurre egitea ahalbidetuko du bizitza osoko ikaskuntzak, eta erraztu egingo du gaitasun intelektual handiagoa eskatzen duten lanpostuetara egokitzea. Gaitasun horiek, ezinbestean, hiru trantsizioekin (teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta osasun eta gizarte arlokoa) lotutako trebetasunekin konbinatu behar dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentuak pertsonetikiko eta haien lanaren kalitatearekiko hartutako konpromiso honek, ezinbestean, kontuan hartu behar du Gipuzkoako ingurunea aldakorra dela. Ingurune horretan, ikaskuntzarako orientazioan eta pertsonen egokitzeko gaitasunean oinarritzen da bizitza osoko ikaskuntza; pertsonen enplegarritasuna errazten duen palanka da, eta parte hartzen duten erakundeen eraldaketa bultzatzen du.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako helduek (25-74 urte) egiten duten ikaskuntza-jardueraren jarraipena egiten du, urtero egiten den kontsulta baten bidez (urteko lehen hiruhilekoa). Kontsulta horretan, pertsonak ikaskuntza-jarduerei dagokienez dituzten funtsezko alderdiak aztertzen dira. Txosten honetan, 2024an egindako kontsultaren emaitzak jasotzen dira.

1.2. Erabilitako metodologia eta definizioak

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jardueren berri izateko, urtero inkesta egiten da.

Definizioak¹ eta edukiak mantentzeak bermatzen du neurketaren jarraikortasuna eta, batez ere, nazioartean alderatu ahal izatea. Gainera, emaitzen aldi baterako alderagarritasunari eusteko, pertsoneri urte bakoitzeko otsailean egin zaie kontsulta sistematikoki.

Kontuan hartu diren ikaskuntza-kategoriak definitzen dira jarraian:

- Ikaskuntza formala: hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan egiten da eta aitortutako kualifikazioak eta diplomak lortzera bideratuta dago.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean egiten da, baina ez dago titulu ofizial bat lortzera bideratuta. Hezkuntza-erakundeen baitan nahiz kanpoan egin daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, pintura-eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko asmoz egiten diren jarduerak dira, norbere kasa egiten dira, inolako erakundeetara joan gabe. Ez dago ikaskuntza ez-formala bezain egituratuta, adibidez, familian izaten diren ikaskuntza-jarduerak, lantokikoak, edo pertsona bakoitzaren eguneroko bizitzakoak izan daitezke.

Bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartze tasa² ikaskuntza formaleko eta/edo ez-formaleko jardueretan pertsonen parte-hartzea oinarri hartuta eratzten da.

¹ Eurostaten metodologia.

² Ikaskuntza informalak osatzen du ikaskuntzaren ikuspegi orokorra, baina ez dira aipatutako zenbaketan kontuan hartzen, oso subjektiboa baita –norbere kontura ikasten dena–, eta oso irregularra da herrialde batetik bestera. Iturria: Eurostat.

2. Ikasten duten pertsonak


2.1. Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea

Gipuzkoako hamar heldutik ia lau ikasten ari dira

Gipuzkoako helduen (25-74 urte) % 37,7k parte hartu du 2024an egin diren bizitza osoko ikaskuntzako (BOZI) jardueretan³. Alabaina, grafikoan ikusten den bezala, nahiz eta adierazlearen urte arteko aldakuntza ez den nabarmena (ehuneko -0,5 puntu), bilakaerak erakusten du tasa % 38 baino txikiagoa dela, eta hori ez da gertatu 2012az geroztik.

1. grafikoa Ikasten duten pertsonak, sexuaren arabera. 2022, 2023 eta 2024

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

³ Horrelako ikaskuntza-jarduerak dira titulu ofizial bat lortzera (ikaskuntza formala) bideratutakoak eta, modu antolatuan eta iraunkorrean egin arren, titulurik ematen ez dutenak (ikaskuntza ez-formala).

Horrenbestez, bi urtez jaitsierak gertatu eta gero, badirudi beheranzko joera bat dagoela etengabeko ikaskuntzako partaidetzan. Hala, adierazlea % 40 baino txikiagoa izatea sendotu da, hori izan da-eta erreferentziazko balioa urte luzez.

Emakumeen partaidetza gizonena baino zertxobait handiagoa da ikaskuntzan

Aldea ez da handia, baina Gipuzkoako emakumeek (% 38,8) gizonek (% 36,5) baino neurri handiagoan parte hartzen dute etengabeko ikaskuntzako jardueretan. Orobat, aurreko urteko balioei erreparatuta, emaitzak ikusita ematen du emakumeen kolektiboak portaera hobea duela, partaidetza pixka bat igo baita (+0,2 puntu). Gizonen kolektiboaren partaidetzak behera egin du (-1,4 puntu), ordea.

Horren guztiaren ondorioz, etengabeko ikaskuntzako jardueretako partaidetza jaitsi egin da Gipuzkoan, emakumeen partaidetza handitu izana ez delako nahikoa gizonen partaidetzaren beherakada orekatzeko.

Denbora-tarte zabalago bat aztertuz gero, honako hau ikusten da:

- Gipuzkoako gizartea ez da oraindik iritsi pandemiaren aurreko tasara etengabeko ikaskuntzako partaidetzan. Emaitza orokor bat da, baina genero-ikuspegitik ere egiaztatu da: bai emakumeen bai gizonen partaidetza 2020aren aurreko ratioak baino txikiagoa da (pandemiaren aurreko garaia).
- Gizonen eta emakumeen partaidetza-aldeak bere horretan jarraitu du segida osoan zehar, gutxi-asko, 2022an izan ezik. Urte horretan, balioak alderantzikatu ziren, eta gizonen partaidetza emakumeena baino ia ehuneko hiru puntu handiagoa izan zen.

Bestalde, genero-arrakala txikiagoa da pandemia aurreko balioekin konparatuz (lau puntu 2019an eta 2020an), baina, 2024ko datuen arabera (2,3 puntu), arrakala 2023koa baino handiagoa da (0,7 puntu).

Ikaskuntza ez-formala nagusi

Taula honetan ikusten den moduan, Gipuzkoako helduek askoz neurri handiagoan parte hartzen dute ikaskuntza ez-formaleko jardueretan, ikaskuntza formaleko jardueretan baino. Egoera horixe da nola gizonentzat hala emakumeentzat.

Zehazki, Gipuzkoako emakume helduen % 32,2k adierazten du ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartu duela azken 12 hilabeteetan, eta % 9,8k dio ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartu duela, berriz. Hortaz, partaidetza halako hiru da ikaskuntza ez-formalaren modalitatean.

Gizonen jokabide-eredua berdina da, ñabardura jakin batzuekin. Gizonen % 29,1ek esaten du ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartu duela, eta % 11,4k aditzera eman du ikaskuntza formaleko jarduerak egin dituela. Hala, emakumeen kasuan ez bezala, bi modalitateen arteko distantzia laburragoa da, baina modalitate ez-formala gailentzen da gizonen artean ere.

2023ko datuen aldean, emakumeen kolektiboan ikusten da partaidetza apur bat handitu dela bai ikaskuntza ez-formaleko jardueretan (+0,2 puntu), bai ikaskuntza formaleko jardueretan (+0,9 puntu). Gizonen kolektiboan, aldiz, ikaskuntza formaleko partaidetza-tasa oso gutxi igo da (+0,1 puntu), baina ikaskuntza ez-formalekoa jaitsi egin da (-1 puntu), eta horrek BOZIn duten parte-hartzea baldintzatzen du.

1. taula Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza-mota eta sexua. 2022, 2023 eta 2024

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %

	2022	2023	2024
Ikasten duten emakumeak	37,7	38,6	38,8
Ikaskuntza formala	12,5	9,6	9,8
Ikaskuntza ez-formala	29,4	31,3	32,2
Ikasten duten gizonak	40,6	37,9	36,5
Ikaskuntza formala	8,5	11,3	11,4
Ikaskuntza ez-formala	34,2	30,1	29,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

2.2. Ikaskuntza, adina edo lortutako prestakuntza

Bitarteko adinekoek (45-54 urte) soilik areagotu dute ikaskuntzako partaidetza


Ikaskuntza-jardueretako partaidetza nabarmen murrizten da pertsonen adinarekin batera. Ondorio hori berretsi eta indartu da herritarrei Ikasmina proiektuaren barruan urtero egindako kontsulta guztietan. Hala eta guztiz ere, berezitasun bat dago azken bi kontsultetan: bitarteko adineko kolektiboaren (45-54 urte) partaidetza-tasa aurre-aurreko kolektiboarena (35-44 urte) baino pixka bat handiagoa da.

Hortaz, 2023ko eta 2024ko kontsultak ikusirik, urteetan zehar (2008az geroztik) egiaztatu den emaitza eta azken bi kontsultena desberdinak dira. Nolanahi ere, etorkizunean kontsulta gehiago egin arte itxaron beharko da, emaitza hori sendotzen den edo ez ikusteko.

2024ko kontsulta dela eta, hau ikusi da, adina kontuan hartuta:

- Gazteenen (25-34 urte) ia erdiak (% 49,2) ikaskuntza-jardueraren bat egin du kontsultaren aurreko 12 hilabeteetan. Ratio hori 2023koa baino txikiagoa da (-2,4 puntu).
- Ikasten duten 35-44 urte artekoen ehunekoak bere horretan jarraitzen du (% 44,7; +0,1 puntu).
- Gipuzkoako 45-54 urte dituztenen erdiak (% 49,3) zerbait ikasi du azken urtean, eta partaidetza dezente igo da 2023tik (+2,1 puntu).
- Kontsultaren aurreko 12 hilabeteetan zerbait ikasi dutela esan duten 55-64 urtekoen ehunekoa ez da ia aldatu (% 29,6, +0,3 puntu).
- Azkenik, nagusien taldeak (65 urtetik 74 urtera bitarte) partaidetza txikiagoa du: % 15,5 2023an, eta % 14,5 2024an (-1 puntu).

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, adin-taldeen arabera. 2022, 2023 eta 2024




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

Goi-mailako ikasketak dituztenen erdiak ikasi egiten du

Adinarekin gertatzen den bezala, lotura estua dago ikaskuntza-jardueretako partaidetzaren eta ikasketa-mailaren artean. Hala, urterik urte egiaztatzen da ezen zenbat eta ikasketa-maila altuagoa, ikaskuntza-tasa handiagoa dela.

2024an, goi-mailako ikasketak dituztenen erdiak (% 51) dio ikaskuntza-jardueraren bat egin duela kontsulta egin aurreko 12 hilabeteetan (-5,8 puntu, 2023tik hona). Bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, etengabeko ikaskuntzan dihardutenen partaidetza % 29,4 besterik ez da (-1,8 puntu), eta % 13,5era arte egiten du behera lehen mailako ikasketak dituztenentzat (-2,2 puntu).

3. grafikoa Ikasten duten pertsonak eta ikasketa-maila. 2022, 2023 eta 2024



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko lotura

Enplegua dutenek ikasten dute gehien

Pertsonen lan-egoera erabakigarria da ikaskuntza-dinamikei dagokienez.

- Gipuzkoan soldatapeko lana duten bi heldutik ia batek ikaskuntza-jardueraren batean parte hartu du azken urtean (% 47,2). Hala, partaidetza-tasa apur bat jaitsi zaie 2023aren aldean (+1,2 puntu).
- Langabezian daudenen kolektiboa gehien ikasten duen bigarrena da (% 31,4), baina beheranzko joera du eta 2024an areagotu da, partaidetza ehuneko ia 10 puntu txikiagoa da eta.
- Bukatzeko, ikasten ari diren erretiratuen ehunekoa ere jaitsi da (-1,9 puntu), baina lan-merkatuan sartu ez direnen ehunekoa handitu egin da (+5,8 puntu), ordea.

Azken finean, laneko egoerak bat egiten du ikaskuntzan duten parte-hartzearekin, eta ordainpeko lanarekin lotuta daudenek (lanean ari direnak eta/edo lan egin nahi dutenak) ikasten dute gehien, erretiratuekin eta/edo lan-merkatuan ez daudenekin alderatuta. Emaitza horiek motibazio profesionalarekin lotuta daude, hori baita irakaskuntzarako trakzio-faktorea.

2. taula Ikasten duten pertsonak eta enpleguarekiko harremana. 2022, 2023 eta 2024

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %

	2022	2023	2024
Lan edo lanbide bat du	47,9	46,0	47,2
Langabezian	45,6	41,0	31,4
Erretiroa hartuta	18,3	18,8	16,9
Lan-merkatura sartu gabe	8,5	10,6	16,4
Guztira	39,2	38,2	37,7

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

3. Zein dira ikasten duten pertsonak?

3.1. Ikasten duten pertsonen tipologia

Gehien ikasten duen kolektiboa: 55 urtetik beherakoak, hirugarren mailako ikasketekin eta lan ordainduarekin

Taulan ikusten da zer ezaugarri dituzten azken urtean ikaskuntza-jardueretan parte hartu duten Gipuzkoako helduek:

- Genero-ikuspegitik begiratuta, kolektibo bakoitzerako lortu diren emaitzak ez dira oso desberdinak. Dena den, emakumeen partaidetza ikaskuntzan gizonena baino apur bat handiagoa da (% 52,3 eta % 47,7, hurrenez hurren).
- Adinari dagokionez, ikasten duten lau lagunetik hiruk (% 75,5) 55 urte baino gutxiago dituzte: % 19,2 25 urtetik 34 urtera artekoa da (-1,1 puntu); % 23,5ek 35 eta 44 urte artean ditu (+0,1 puntu); eta % 32,8 45-54 urte artekoa da. Ikasten duten pertsonen biztanleria-oinarria osatzeko, aipatzekoa da 55 eta 64 urte arteko taldearen partaidetza % 17,5ekoa dela, eta 65-74 urte arteko kolektiboarena, berriz, % 7,0.
- Ikaskuntzako partaidetzak, ikasketa-mailaren arabera, goi-mailako ikasketak dituen kolektiboaren garrantzia erakusten du. Izan ere, ikasten dutenen % 65,6k hirugarren mailako ikasketak ditu, eta ekarpena handiagoa da 2023koa baino (+5,4 puntu), gainera. Ikasten dutenen % 29,5ek bigarren mailako ikasketak ditu, eta % 5ek, lehen mailako ikasketak. Bi kolektiboen pisua murriztu egin da azken urtean (-1,4 puntu eta -3,9 puntu, hurrenez hurren)

- Horrez gain, ikasten duten 10 lagunetik ia zortzi lanean ari dira (% 78,1). Ikasten duten gainerakoak langabezian daude (% 5,3), erretiroa hartuta dute (% 9,9) edo ez dira lan-merkatura sartu (% 6,6).

Halarik ere, ikaskuntza-jardueretan parte hartzen duten Gipuzkoako helduen (25-74 urte) profila emakumeak eta gizonak dira ia berezi gabe; 55 urte baino gutxiago dituzte, goi-mailako ikasketak dituzte eta, batez ere, enplegu ordaindua. Profila mantendu egin da aurreko ekitaldiekin konparatuz.

3. taula Ikasten duen biztanleriaren ezaugarriak. 2022, 2023 eta 2024

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %

	2022	2023	2024
Sexua			
Gizona	51,9	48,9	47,7
Emakumea	48,1	51,1	52,3
Adina			
25-34 urte	23,6	20,3	19,2
35-44 urte	30,9	23,4	23,5
45-54 urte	22,3	32,3	32,8
55-64 urte	16,6	17,5	17,5
65-74 urte	6,7	6,5	7,0
Ikasketa-maila			
Lehen mailakoak	8,0	8,9	5,0
Bigarren mailakoak	30,9	30,9	29,5
Hirugarren mailakoak	61,1	60,2	65,6
Lan-jarduerarekin lotuta duen egoera			
Lan edo lanbide bat du	76,4	75,6	78,1
Langabezian	9,9	8,5	5,3
Erretiroa hartuta	10,5	10,5	9,9
Lan-merkatura sartu gabe	3,2	5,3	6,6
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

4. Zein dira ikasten ez duten pertsonak?

4.1. Ikasten ez duten pertsonen tipologia

Ikasten ez duten pertsonen profila: funtsean, 54 urtetik gorakoak, bigarren mailako ikasketekin eta enpleguarekin

Azken urtean ikaskuntza-jarduerarik egin ez dutela adierazi duten helduek ezaugarri hauek dituzte:

- Ikasten ez dutenen artean, sexuaren araberako aldea txiki-txikia da: % 50,2 gizonak dira, eta % 49,8, emakumeak.
- Ikasten ez dutenen erdia 54 urtetik gorakoa da. Zehazki, % 25,2k 55 eta 64 urte artean dituzte, eta % 24,8k, 65 eta 74 urte artean. Ondoren, bitarteko adineko taldea dator (45-54 urte), % 20,4 dena; gero, 35 eta 44 urte arteko tartea, % 17,6ko partaidetzarekin; eta kolektiborik gazteenak (25-35 urte) partaidetzarik txikiena du (% 12).
- Ikasten ez duten Gipuzkoako helduen % 42,8k bigarren mailako ikasketak ditu; % 38k, hirugarren mailako ikasketak; eta gainerako % 19,2ak, lehen mailako ikasketak.
- Lan-egoerari dagokionez, nabarmendu behar da ikasten ez duten Gipuzkoako helduen erdiak baino gehiagok (% 52,8) enplegu ordaindua dutela. Bestalde, % 7,0 langabezian dago; % 29,6, erretiroa hartuta; eta beste % 10,6a ez da lan-merkatuan sartu.

Alde horretatik aipatu behar da lan egiten duen eta/edo lan egin nahi duen kolektiboaren ikaskuntzako partaidetza hobetzeko tarte handia dagoela, zeren

lan-merkatuarekin duen loturak gaitasunak ikasi, garatu eta hobetzeko motibazioa bultzatu beharko luke.

Laburrean, azken urtean ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez duten Gipuzkoako helduen profila hau da: 54 urtetik gorako emakumeak eta gizonak bereizi gabe, bigarren mailako ikasketak dituztenak eta enplegu ordaindua dutenak.

4. taula Ikasten duen eta ikasten ez duen biztanleriaren ezaugarriak. 2024

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren %

	Ikasten duen biztanleria	Ikasten ez duen biztanleria
Sexua		
Gizona	47,7	50,2
Emakumea	52,3	49,8
Adina		
25-34 urte	19,2	12,0
35-44 urte	23,5	17,6
45-54 urte	32,8	20,4
55-64 urte	17,5	25,2
65-74 urte	7,0	24,8
Ikasketa-maila		
Lehen mailakoak	5,0	19,2
Bigarren mailakoak	29,5	42,8
Hirugarren mailakoak	65,6	38,0
Lan-jarduerarekin lotutako egoera		
Lan edo lanbide bat du	78,1	52,8
Langabezian	5,3	7,0
Erretiroa hartuta	9,9	29,6
Lan-merkatura sartu gabe	6,6	10,6
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

4.2. Pertsonak zergatik ez dute ikasten?

Ikasteko oztoporik handienak: motibaziorik eza, eta gero ikasteko ezintasuna, familia-erantzukizunengatik

Beheko taulan, ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez duten Gipuzkoako helduek azken hiru urteetan adierazitako iritzia jaso da, ikasteko oztopo gisa azaldutako arrazoi jakin batzuei buruzkoa. Emaitzek hau erakusten dute:

- Gipuzkoako helduek ez ikasteko adierazten duten arrazoi nagusia motibazio falta da (% 38,6). Faktore horri antzeko pisu erlatiboa esleitu zitzaion 2023an (% 34,4), baina aipatu behar da ez ikasteko bigarren arrazoia izan zela orduan, familia-erantzukizunen atzetik.
- Ikasten ez dutenen % 31,4k dio familia-erantzukizunak izateak eragozten diola ikastea. 2023ko kontsultaren aldean, arrazoi horrek pisua galdu du (-7,5 puntu), eta bigarrena da orain. Aipatu behar da familia-erantzukizunak ikasteko oztopo nagusizat jotzen direla kontsultetako askotan, behin eta berriz.
- Halaber, ikasten ez dutenen % 30,8ren iritziz, ez du ikasteko beharrik, eta % 24,6k adierazten du ez dela bateragarria haren lan-ordutegiarekin.
- Gainerako argudioek askoz pisu txikiagoa dute (ikasteko zaharrak direla pentsatzea, % 15; eta ikastearen kostua, % 9,2).

5. taula Azken 12 hilabeteetan ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez izanaren arrazoiak. 2022, 2023 eta 2024

Ikasi ez duen 25 eta 74 urteko biztanleriaren %

	2022	2023	2024
Nire familia-erantzukizunek ikastea eragozten didate	24,8	38,9	31,4
Motibaziorik ez dut	41,2	34,4	38,6
Prestakuntza ez da nire lan-ordutegiarekin bateragarria	20,5	28,5	24,6
Uste dut ez dudala beharrik, nahikoa ezagutza badut	32,2	27,6	30,8
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	11,3	11,5	15,0
Garestia da, ezin dut ordaindu	6,1	9,2	9,2

Hainbat erantzun; bi baliorik handienak lodiz

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

Sexuaren arabera, alde nabarmenak ez ikasteko arrazoietan

Taulan ikusten denez, gizonek eta emakumeek ez ikasteko adierazten dituzten arrazoi ordena desberdina da. Zehatz-mehatz, ikaskuntza-jardueretan parte ez hartzeko arrazoi zerrendari dagokionez, hau ikusten da:

- 10 emakumetik lauk baino gehiagok (% 43,4) aditzera ematen dute familia-erantzukizunak ikaskuntza-jardueretan parte ez hartzeko oztopo nagusia direla. Gizonen kasuan, familia-erantzukizunak laugarren arrazoi dira; zehazki, ikasten ez duten gizonek % 19,5ek dio ikasteko oztopo bat dela hori.
- Hortaz, emaitza horietan ikusten da genero-arrakalak bere horretan jarraitzen duela, familia-erantzukizunak ikasteko oztopotzat hartzea dela eta. Pandemiaren urteetan, mugikortasunaren mugek ikaskuntzako partaidetza baldintzatzen zuten neurri handiagoan. Hala eta guztiz ere, genero-arrakala nabarmen murriztu zen (8,7 puntuko aldea 2021ean). Aldiz, hurrengo urteetan berriz egin zuen gora (18,9 puntu 2022an eta 22 puntu 2023an), eta 2024an 23,9 puntu dira.
- Gizonen artean, ez ikasteko adierazitako arrazoi nagusia (% 40,6) motibazio falta da. Emakumeen artean, berriz, arrazoi hori bigarrena da (% 36,5).
- “Uste dut ez dudala beharrik, nahikoa ezagutza badut” arrazoiari dagokionez, ez ikasteko bigarren arrazoiak da gizonentzat (% 37,1), eta laugarrena emakumeentzat (% 24,5).
- Lau gizonetik (% 24,3) eta emakumetik (% 24,9) batentzat, gutxi gorabehera, trebakuntza ez da bateragarria lan-ordutegiarekin. Hirugarren arrazoiak da bi kolektiboentzat.
- Azkenik, gizonek zein emakumeek gutxiagotan aipatzen dituzte adina edo prestakuntzaren kostua.

6. taula Ikaskuntzan parte ez hartzeko arrazoiak, sexuaren arabera. 2024

Ikasi ez duen 25 eta 74 urteko biztanleriaren %

	Gizonak	Emakumeak
Nire familia-erantzukizunek ikastea eragozten didate	19,5	43,4
Motibaziorik ez dut	40,6	36,5
Prestakuntza ez da nire lan-ordutegiarekin bateragarria	24,3	24,9
Uste dut ez dudala beharrik, nahikoa ezagutza badut	37,1	24,5
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	15,1	14,9
Garestia da, ezin dut ordaindu	6,8	11,6

Hainbat erantzun; bi baliorik handienak lodiz

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

Ikasten ez dutenen adinaren arabera ere desberdinak dira ikasteko oztopoak

Egoera aztertu da azken urtean ikaskuntza-jarduerarik ez dutenen adina ere kontuan hartuta, eta, ikuspegi horretatik, hau ikusi da:

- Gazteenek (25-34 urte) adierazi dute oztoporik handiena prestakuntza lan-ordutegiarekin bateratzeko zailtasuna dela (% 48,3), eta ondoren, motibazio falta (% 45,0).
- Bitarteko adineko bi taldeetan (35-44 urte eta 45-54 urte), familia-erantzukizunak erabakigarriak dira ez ikasteko (% 42 eta % 44,1, hurrenez hurren). Bigarrenik, lan-ordutegia eta ikaskuntza-jarduerak bateratzeko zailtasuna aipatzen dute (% 34,1 eta % 37,3).
- Bi kolektibo nagusienek (55-64 urte eta 65-74 urte) oso emaitza antzekoak dituzte. Biek ala biek diote ikasteko oztopo nagusia motibazio falta dela (% 40,5 eta % 43,5, hurrenez hurren). Eta bigarren arrazoiak da beharrik ez dutela, nahikoa ezagutza dutelakoan (% 30,2 eta % 37,9).

7. taula Ikaskuntzan parte ez hartzeko arrazoiak, adin taldearen arabera. 2024

Adin-talde bakoitzean ikasi ez duten biztanleen %

	Adin-segmentuak				
	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Nire familia-erantzukizunek ikastea eragozten didate	31,7	42,0	44,1	23,0	21,8
Motibaziorik ez dut	45,0	30,7	33,3	40,5	43,5
Prestakuntza ez da nire lan-ordutegiarekin bateragarria	48,3	34,1	37,3	15,9	4,8
Uste dut ez dudala beharrik, nahikoa ezagutza badut	23,3	28,4	29,4	30,2	37,9
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	5,0	2,3	10,8	23,0	24,2
Garestia da, ezin dut ordaindu	13,3	12,5	9,8	7,1	6,5

Hainbat erantzun; bi baliorik handienak lodiz

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Departamentua

5. Ondorioak

5.1. Laburpena: emaitza nagusiak

Azken kapitulu honetan, Gipuzkoako helduek (25 eta 74 urte artean) bizitza osoko ikaskuntzako jardueretan duten parte-hartzeari buruzko azterketaren ideia nagusiak jaso dira, bai eta partaidetza horren ezaugarriak ere.

Ikasten duten pertsonak

- Gipuzkoako 10 heldutik lauk baino apur bat gutxiagok (% 37,7) adierazi du ikaskuntza-jardueraren batean parte hartu duela kontsulta aurreko 12 hilabeteetan.
- Emakumeek gizonek baino neurri handixeagoan ikasten dute, baina ez dago alde handirik: emakumeen % 38,8k eta gizonen % 36,5ek ikasi egiten du.
- Oro har, Ikaskuntzako partaidetza jaitsi egiten da adinak gora egin ahala. Alabaina, 45 urtetik 54 urtera arteko kolektiboak aurre-aurreko taldeak baino partaidetza-tasa handiagoa izan du 2024an (baita 2023an ere).
- Gehiago ikasten dute bizitzan zehar ikaskuntza-dinamika bat eduki izan dutenek (goi-mailako ikasketak), eta lan-merkatuarekin lotuta daudenek (enplegu ordaindua edo langabezia).


Ikasten ez duten pertsonak

- Gipuzkoako hiru heldutik bik (% 62,3) ez dute ikaskuntza-jardueretan parte hartu azken urtean.

- Ikasten ez dutenen eta ikasten dutenen profila kontrakoa da, nahiz eta ñabardurak dauden: ikasten ez duten gehienek 54 urte baino gehiago dituzte, bigarren mailako ikasketak dituzte eta erdia lanean ari da.
- Gipuzkoako helduek ikasteko duten oztopo nagusia motibazio falta da, eta ondoren familia-erantzukizunak datoz. Nolanahi ere, genero-ikuspegitik begiratuta, alde nabaria dago oztopo bakoitzari ematen zaion garrantzian. Besteak beste, aipatu behar da genero-arrakala dagoela familia-erantzukizunen ondorioz ikasteko zailtasunean (23,9 puntuko aldea).





Izenburua:	Ikasten duten pertsona helduak Gipuzkoan 99. dokumentua, 2024ko maiatza
Sustapena eta finantzaketa:	Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia <div style="display: flex; justify-content: center; align-items: center;"> <div style="text-align: center;"> <p>Gipuzkoako Foru Aldundia Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua</p> </div> <div style="text-align: center;">  </div> <div style="text-align: center;"> <p>Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos</p> </div> </div>
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa lana:	Datakey, S.A.

